

Juan Bautista Etxarren Otamendi
Arakil, Nafarroa (1900)

Aurkibidea

Biografia

Arakilgo Urritzola kontzejukoa. Aita zuen bertakoa; ama, berriz, Azkaratekoa (Araitz).

Zintak

AKL-005

- **Proiektua:** Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Data:** 1985-01-01
- **Iraupena:** 13 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Artola Kortajarena, Koldo

AKL-011

- **Proiektua:** Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Data**: 1985-01-01
- **Iraupena**: 9 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea**: Aranzadi elkarte

Pasarteak

1. Ukuilu, ur eta alorren bedeinkapena

- **Erref**: AKL-005/001
- **Iraupena**: 0:04:58. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:04:58
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>San Anton eguneko bedeinkapenak. San Gregorio egunean apaizak ura bedeinkatzen zuen eta alorrez alor joaten ziren bedeinkazioa zabaltzen.</p>

Transkripzioa

- Eta baita ere, ez dakit iraztorra edo zer beste erre, eta haren kea ukuiluan zabaldu edo... hori noiz edo nola izaten da?

- Ah!... ori? San Anton.

- San Anton? aber, hori nola da?

- Ba... lemixko? makil betzuk eta, zea batzuk, elizea eaman; oain ya ezta itten, e? eamaten tzeen, ta, apezak bedeiket, ta geo? ore're ez, sekatu lemixiko, ta urrengo urteako. Ta, San Anton goizian? su in? ta, puske aiek? ya erre tzeen garaien? artu, zartai zar batian, zartagi badakizu zer den? zartai zar batëan? ta, okoillun buelta eman, animele guztiei, muturretik pasatuz, jeje! färres... oe, esainko zuten: "Obe pentsu ona ematen baneek... ekia beño".

- Obe pentsu ona?

- "Pentsu ematen baneek", animeliak esainko zutela: "Mejor si me das buen pienso que... que el humo"... e? kostunbre oi... zautu nuen nik. Ta, beste kostunbre at bazen? San Gregorio, maietzean, beatzigarrenean; ta, urea bedeikatzen tzun apezak, ta ur oe artu? katillu (b)etian o eltze (b)atëan? ta gue ama? alorres alorres, ta gure ama bezela, beste guztiek e bai, ta, artatik gari onak tortzeko? eta, Jaingoikoa(k) libretzeko... eauntsi txarres? ta olako, orazioaz itzulkin? ta, denai buelta ematen tzion. Ta, azkenian? sobratzen tzena... "Iñok ezpadu siñestatzen? o balën bada, bakarren bat siñestatzen eztuna? arren gariak ere salba daitzela", ta, botatzen tzen... sobratzen tzena; buelta manderëa!

- Polita, e?

- Bai; oin ya, gauze oiek gal-, pasatu dee.

- Apezak ez zuen inoiz alorrek-eta bedeinkatzen?

- Baita ere! bai.

- Eta baita ere saguen kontra eta...?

- Baita ere, bai, bazëren, bai.

- Hori noiz izaten zen?

- Erri guztietan? gurutzeak tzeren, mendin; emen ee bazeen, elizetik beida o? gurutze at, tzuresköa: lau makil, ola? an eoten tzen ta... zer feri-,

fetxetan, eztitzut seguru esaen... beti're, Paskoak...-kin, torritzen tzen jai ori, o... fest ori. Eun artan? asi bear tzeen, rogatibek, rogatibek etsaten tzioten gauze oiei-ta, e? ta... apeza artu? ta erri guztie juaten giñen gurutze artaa? ta apeza, orduen, beikatzen zittun kanpöak, mendik eta... denak, bai. Ta ya, pixkepixkeka gurutze oik denak, kendu dëe. Emen bazen bat, or beste at, ta, erri guztietan bazeen bi o iru, beño, oain, iñok e, iñok eztu... señaileik maten ya.

- Eta nork kendu ditu, edo?

- Ara! ez... ori, ori, kostunbriak juaan dee ta, iñok eztio, eztio kasuik in. Oain e, esan dute, bai, Lunbierren, sekuleko desastriak in tutela; ba omen tzeen kru-, gurutzeak eta gauzäk, ta... denak puskäta ta, elizen ee zerbait in dute.

- Bai?

- Bai, eunotan e? ni... biar, izeinko ittu amabost eun, la... peregrinación de los... enfermos? Jabierrren eondu nitzen, ta, Lunbierren ee bai, ta, orduskeos? periodikoan leittu ut, desastriak in ttutela, elizen? ta alako... lekutan, gurutzeak bazeela? ta ixkrizio ttar batzuk e paretetan in ttutela... Bah! mal sin provecho; nai ezpaduk, utzak!

- Eta apezak, hori bedeinkatzearekin batera, ez zuen zerbait egiten arratoiak edo saguak edo...

- Bai-bai, bee... orazioak bazittun, bai: "Líbranos del...", ta badakizu? nik ezt-, ez nittun gauzä, guk goguan artu beño... ba ez! bazittun gauze bakotxak, bee... orazioa bazun, bai. Gu pozik e juaten giñen! ta gañea, juaten tzeen guztie? gosari pixkuat eamaten giñun? ta, ogi t'ard(o)a? nai giñun guztie, eun ortan, bai.

2. Ardoa garraiatzen zuen gizonari gertatutakoa

- **Erref:** AKL-005/002
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:04:58. **Bukatu:** 00:07:47
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdota, kontakizunak

Laburpena:

<p>Zahagietan garraiatzen zuten ardoa inguru guztietan. Gizon bati mandoarekin ardoa garraiatzen ari zela gertatutako pasadizoa.</p>

Transkripzioa

- Ba... zagiek, zeen, pellejos, auntze-larrue? kendu? ta ardoa trasportatzen ibiltzen tzuten, esos pellejos, de diez litros...

- Hori non?

- Emen!... emen, tierra ontan denëan, ta gi(t)zona batzeen, mandöakin? Estellet-, Estella aldian, artu bi zagi oietatik? unos... obei bet kantaro o ala? -kantaroak, ontze litros setenta y siete zentilitros, tzun- obei bet dekalitro o ala? ta torri eta saltzen zittuten, ta, orko erri ortan? zubi oe pasatu ta oneta? loyatz, ordun karretereik etzen.

- Zein da herri hori?

- Erroz; zubie pasatu ta loy aundie! ta, mandoa? bee zagi, bee kargaki(n), an sartu men tzen, ta, gizona... ez! ez sartu nai loyean, bea're atrapatuko zela? ta mandoa tripeaño loyes beteik? ta azkeneko, ausilio! eskatu men tzuen. Ta, errota, goiko eskiñen or dago, oi, iriñe itteko ta, errotari,

errotarie, aittu men tzun ta: “¿Qué andas Joxe Miguel?” - “Pues, aquí, el macho entrar en el barro y... no puede sacar. A la Virgen de Oskia... tres pellejos de vino, a San Miguel? un pellejo de vino”. A no sé cuántas... - “Pero chico, más que lo que vale el macho y la carga vas a ofrecer” - euskeras- “Beño, gizona! mandoak eta... ardoak balio duten beño geigo eskeintzen” - “Ah! loyetik atraik baleo mandoa?... or geldittuko lizke eskañiik”.

- Ez zuen kunplitzeko gogorik, e?

- Mingañez!

- Eta San Migel eta hori ere, euskaraz esaten zuen?

- Bai.

- Nola, nola esaten zuen?

- “Migel Aingerue”.

- Bai, ta aber, atera zitzaion, atera zaikion beste gizon bat, ez?

- Errotarie.

- Errotaria, eta zer, nola esan zion?

- “Joxe Migel, ze ari aiz?”, ta, “Emen, mandoa sartu zaikiet loyen? ta, etzin a-... etzinik ta, ateako ta, olako santuei, Ama Berjiñe Oskikoai, anbeste karga olio eskañi ziotet, San Migel Aingeruei e bai, ta, olako santuei’re bai, San Donatuei’re bai, anbeste” ta, “Beño, erua o zer yago i? mandoak balio du, mandoak eta kargak balio dun beño, olio geigok (e)karri...” - “Ah! mandoa loyetik atreaik baleo!”...

3. Karobien inguruko azalpenak

- **Erref:** AKL-005/003
- **Iraupena:** 0:05:13. **Hasi:** 00:07:47. **Bukatu:** 00:13:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak

Laburpena:

<p>Kisu-labeen eta galtzina-labeen (karobien) inguruko azalpenak. Berdin egiten ziren, baina harri-klaseak bereizten zituen.</p>

Transkripzioa

- Kisu-labeak eta, egin izan dira hemen?

- Bai.

- Zuk egin duzu edo ikusi duzu egiten?

- Nik ez, beño... galtzin-labëak? bai, galtzin-labiek.

- Horiek zer dira?

- Zulo etzuk ongi lurrian in? ta... gero, ori e? azpitik zulu at utzi? ta, gora erä... nunbai(t), erdi-ereditik? zulu at gora; ta, arris bete? arriek ekartze itten ber zun, e? kalitze ezpatzen ematen? etzen ona, ta arris bete zul ue? ta azpitik, sue man? tä igual, zortzi o amarr eunes, suten euki? ta, erretzen tzen! ta, gorraz, gorra-gorra itten tzute, ta, kaltziñä, areki. Ta kisue igual, estilo... bera; kaltrazie izen biar tzun, arri-klasea, bai; bat zen kixuendako? ta beste at galtziñendako. Galtziñe, badakizu tzer den, ‘cal’, ‘cal y yeso’; una pa ca-... para cal, había una clase de piedra? y otra...

- Bai; segi, segi, segi euskaraz, bai...

- Ta beste klasian? galtziñentzat, bai. Ta, putzuek, ei zuen, tze? lau-bost metro bai, lurrian, ta azpitik? tunel bat bezela?... lemixko? sue, sus bete, ta ya... sue erre tzen garaien? berriz sartzeko? zea... itten tzaitiko ez jetxi, berriz sartzen tzioten, ta, zortzi-amar eunes, suten egin biar tze, ta, eh!

kixkiltzen tzen! dena, ta, gorr ora gora itten tzen, zuri-zuri galtziñe, ta kixue iluntxëago...

- Baina egin, berdin egiten zen bata nola bestea?

- Bai, bai, bai, lana? igual zuke.

- Harria zen diferentea...

- Bai.

- Eta nondik ekartzen zen harri-mota hori?

- Or, goit(t)i ortan; Arramaska saten diote, mendi bet? ta andik kartzen (t)zuten.

- Arramaska?

- Arramaska, bai, orbel aietan bera da ta... ta, emen? tzer? kilometro erdi bet eonko da, galtzin-labetaa, Pinanzin dia bezte, bi... bi labe andi! ze? izinko zittuten arrek, ayek... lau metro, de diametro, bai, bakotxä(k), ta alture seion bat metro? eta je! eerki bete arris! beño, beti, tximiñie ger-, erditik uzten, ta, oi bete? eurrekin? su man? ta, anbeste eunes? juntatzen tze(n), galtziñe juntatzen tze(n), bai.

- Eta harria...

- Arri? karri biar tzen goittitik.

- Arramaska horretatik?

- Arramaskätik karri.

- Hori galtzine, eta beste harria egiteko?

- Ore ez, falsuago zena, kixuentzat illunao, tufa saten diogu, tufa e... arrie, galtziñena? fiñe, beño beste oi... bastuago.

- Eta hau nondik ekartzen zen?

- Or, ondo-ondotik, bai, beste menditto atetik? ortik.

- Nola du izena, beste menditto horrek?

- Eularbileta, Eulerro...-bileta.

- Eta hiru-lau edo sei egun egon behar tzuen, e?

- O geyo, e? ori fijo eztiut esaiñen, biño... Erreroak? berotzen duen bezela, burnie? ola... berotu biar tzen a, bere... lazköa fatzu(k).

- Eta lan horretan ari zenak zein izena zuen?

- Caleros...

- Eta euskaraz? kare-egileak edo?

- Galtzingillëak.

- Eta besteak? kisu...

- Kisu, kisu... kisuille, kisuillea.

- Eta hemen, herri honetan baziren, e? horretara dedikatzen zirenak...

- Ala, ala esaten tzuten, bazerela; nik ez nittun (t)zautu.

- Baina labe horiek bai, ezagutu dituzu...

- Lan ore bai, lan oiek ezautu dittut.

- Eta ez zen arriskurik? mendia... erretzen hasi edo?

- Ez, peligroik etzen.

4. San Juanetako ohiturak Urritzolan

- **Erref:** AKL-011/001
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

<p>San Juanetako ohiturak Urritzolan.</p>

5. Urritzolako Akatillu iturriaz zerbait

- **Erref:** AKL-011/002
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:03:15. **Bukatu:** 00:05:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Akatilluko ura begietako minarentzat ona zela esaten zen.</p>

6. Urritzola: Urteberriko koplak-I

- **Erref:** AKL-011/003
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:05:21. **Bukatu:** 00:07:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

<p>Urteberri egunean kopla-kantari irteteko ohitura zuten. Zer kantatzen zuten: "Ur barrena, ur goiena, Urteberri egun ona...".</p>

7. Urritzola: Urteberriko koplak-II

- **Erref:** AKL-011/004
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:07:24. **Bukatu:** 00:09:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

<p>Gabonetan etxerik etxe eskean ateratzen zirenean etxeko andreari zer kantatzen zioten.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com